

Azkoitiko Udal liburutegiak ia 23.500 bisitari izan zituen joan den urtean

AZKOITIA. Azkoitiko Aizkibel Udal liburutegiak 23.405 bisita jaso zituen joan den urtean. Horietatik 16.952 bisita helduek egin zituzten eta bestelako 5.832ak hurrek.

Inguruko beste herrietan bezala, emakumeak izan ziren Azkoitiko liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak gehien erabili zutenak. Izan ere, bisitari guztietatik 13.989 emakumeak izan ziren eta 8.795 gizonak. Bestalde, ekipamenduak 201 bazkide berri egin zituen 2011n eta dagoeneko 2.659 bazkide ditu.

Maileguei dagokionez, Aizkibel Udal liburutegiak 10.731 argitalpen laga zituen bazkideen artean (bere fondoak 29.068 ale ditu).

Era berean, ekipamendua 274 egunetan izan zen irekita joan den urtean (guztira 1.862 ordutan) eta ohiko zerbitzuak eskaintzeaz gain hurrei zuzendutako sei ekitaldi antolatu zituen.

Horien artean liburu trukaketa bat eta Ixabel Millet, Rosa Martínez eta Maite Franko ipuin-kontalariek eskaini zituzten saioak nabarmendu daitezke.